



Xabi eta Mikel Realeko jokalariek, eta Periko Alonsok, horien aitak eta jokolari eta entrenatzaile txuri-urdina izandakoak, sagardo denboraldia zabaldu zuten, atzo, Petritegi sagardotegian.

Jon URBE / ARGAZKI PRESS

TXOTX GARAIA NEGUAREN EPELEAN

Udako beroaldiaren ondorioz, sagarra lehenago heldu da eta zukuak azukre gehiago du. Gozoa eta usaintsua da eta alkohol gehiago du aurtengo sagardoak. Azken urteotako uztarik urriena ere izan dute ekoizleek eta, horregatik, kanpoko sagar gehiago ekarri behar izan dute eskaerari aurre egiteko. Atzo denboraldi hasiera ekitaldia egin zuten Petritegi sagardotegian, eta lehen txotxa Periko Alonsok eta Xabi eta Mikel semeek egin zuten. Upelak zabalik daude.

Kristina MARTIN

Gozoa eta ohi baino alkohol gehiagorekin datorkigu aurtengo sagardoak. «Afaria laguntzeko oso egokia», baietsi zuen Jose Angel Goñik, sagardogileen ordezkariak.

Bi ezaugarriok fedez egiazta- tu ahal izan zituzten denboraldi hasiera ekitaldian parte hartu zutenek. Sagardo «arriskutsua» da; erraz edaten den horietakoa; mikatz punturik gabekoa.

Udako ezohiko berotasunak eragin du sagarra behar baino lehenago heltzea eta, hortaz, azukre gehiago edukitzea. Hartzitzearen ondorioz, azukrea alkohol bihurtzen da. Aurtengoa 7 gradu inguru dabilela argitu zuen Goñik. Alkohol gehiago izateaz gain, normalean baino usaintsuagoak ere badira aurtengo sagarrak.

Gozoak eta usaintsuak bai, baina uzta eskasa izan da aurtengoa. Astigarragan 7.000 tona sagar landu dira; Gipuzkoako ekoizpenaren erdia baino gehiago. Guztira, 12.000 tona landatzen dira herrialde osoan. Denboraldia, baina, luzea eta intentsitate handikoa da, eta sagardotegi guztien upelak hornitzeko aurreko urteotan baino sagar gehiago ekarri behar izan dute kanpotik.

Kopurua, oster, ez zuten zehaztu ekoizleek. Badirudi kostatuko/ partiduaren aurretik egin sagardotegiai uko/ edo Espanyolen kamisetarik ez dezute bereiztuko».

egiten zaiela hori onartzea, eta kazetariak galdetuz gero soilik erantzuten dute. Erdizka, gainera. «Ez dugu ofaindik kopuru zehatzik, baina ekoizpenaren erdia-edo izango da Frantziatik ekarritakoa». Estatu frantseseko Normandiako eta Britainiako sagarrarekin egin dute, beraz, edango dugun sagardoaren erdia. Horretaz gain, Galiziatik eta Asturiastik ere ekarri dute fruitua.

Lehengaita oso garrantzitsua da, baina ekoizteko prozesua ere funtsezkoa da. Horretan aurrerapauso handiak eman dituzte Gipuzkoako ekoizleek. «Teknika berriak sartzen ari gara eta horrek kontrola eta kalitatea hobetzen laguntzen du», azaldu zuen Goñik.

Kalitateak sagardoaren esportazioa areagotzen lagundu duela nabarmendu zuten. Nahiz eta Euskal Herriak kontsumitzaile nagusia izaten segitzen duen, Katalunian, Madrilen, Mediterraneoko eskualdean, Parisen eta Akitanian ere edaten hasiak dira sagar zukua.

ZAPARRADA ALONSOTARRENTZAT

Sagardoak bazter guztietan sustatzeko asmoz, hain zuzen ere, sortu dute Sagardun Partzuergoa, Astigarragako sagardogileek, Udalak eta kultur elkarteek.

Izan ere, sagardogileentzat egun handia izan zen atzo. Urteko uztaren emaitza harro-harro jendearen aurrean aurkeztu baitzuten. Hemendik Aste San-

tura bitartean, sagardotegiak zabalik izango dira, usadioari eutsiz. Jendea ilaran, basoa eskuetan, upelaren isurketari gorazarre egiten.

Alonsotarrek –aita Perikok eta Mikel eta Xabi semeek– eduki zuten denboraldiko lehen txotxa egiteko ohorea, Petritegi sagardotegian. Telebista kamerak eta argazkilariak prest, Realeko jokalariek «hau da Astigarragako sagardo berria» noiz esango. Hitz magikoak ahoskatu eta berehala, sagardo eta flash zaparrada etorri zitzaizen aita-semeei.

Txotxaren ostean, Maialen Lujanbio Gipuzkoako aurtengo txapeldunaren gomendioa: «Kiroolariak dauzkagu aurten sagardoaren lekuko/ alonsotarrak basoa eskuetan eta kupela ger-

tuko/ partiduaren aurretik egin sagardotegiai uko/ edo Espanyolen kamisetarik ez dezute bereiztuko».

Jon Martin txapeldunordearen bertsoak ere alonsotarrak ondo zaintzearen aldekoak izan ziren. «Gaurko honetan alonsotarrak irekitzea helburu/ baina edatea komeni zaien ez nago oso seguru/ zuek jokatu ta ez pasarazi mesedez zenbait apuru/ zer ospaturik baldin badugu hemen ospatuko dugu».

Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok egin izan dituzte denboraldi hasierako bertsoak, baina aurten Gipuzkoako txapeldun berrien esku utzi dute ardura. Dena dela, ez batek ez besteak ez zuten urteroko hitzorduan hutsik egin.

Alonsotarrek kasu egin zieten Lujanbio eta Martini, gutxi edan zutelako, baina usadioari men eginez, dastatu zuten. «Fresko-fresko dago, ondo sartzen da», esan zuen Xabi Alonsok. Entrenamendutik etorri berriak ziren bi anaiak, eta ondo etorri zitzaizen galdutako likidoa berreskuratzea.

Dena den, eta ganorazko kirolarien moduan, ohiko bezeroak ez direla esan zuten. «Noizean behin gatoz, lagunekin edo taldekideekin». Halere, sagardotegiko giroa, denon legez, gustuko dute alonsotarrek ere. •